

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria 2013ko apirilaren 12a. 334. zenbakia. 24. urtea

Orioko Curriculumuma

O3ten .HSN .2 jardunaldietan aurkeztuko dute Orioko curriculum propioa sortzea helburu duen proiektua.

05

Orioko kontuak
Auzokonposta martxan

10

Aiako elkarrizketa
Juan Mari Etxabe

19

Adarretatik helduta
Alazne Arruti

24

Oroimenaren kutxa
Luis Treku eta errepublika

O3TEN

.HSN

.2



orioko
CURRICULUMA

O3TEN
.HSN
.2

ORIO IRUTEN
.2. jardunaldiak
Hezkuntza Sistema Nazionala



HARRIA
HERRIA
IRRIA

BERRIKUNTZA!!!!

ABDOMINAL HIPOPRESIBOAK TALDEAN



Ibai Ondo 1, Orrio 20810.
943 13 05 77 - 685 71 85 95
www.sinergia-web.com

Ariketa fisiko edo kirolen bat praktikatzen baduzu gomendagarria da zure pelbisaren zolua eta faja abdominala lantzea lesioak ekiditeko.

Zure gerriaren perimetroa jaitsi nahi baduzu Teknika hipopresiboak eta Pilates dira metodo eranginkor eta seguruenak.

ABDOMINAL HIPOPRESIBOEN HELBURUAK:

- Gerriaren perimetroa jaistea
- Postura hobetzea
- Zolu pelbikoaren tonoa handitzea
- Faja abdominalaren tonoa handitzea
- Indarra eta erresistentzia hobetzea
- Edozein kirolen praktikan errendimendu fisikoa hobetzea
- Gernu ihesen prebentzioa eta hobetzea
- Erditze ondorengo errekupeazioa



ABDOMINAL HIPOPRESIBOEN KLASEAK: 30 minutukoak astean bitan
ABDOMINAL HIPOPRESIBO eta PILATESEKO KLASEAK

Kinkladenda - Ume arropa

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

2,5eko DESKONTUA FAMILIA UGARREN TXARTELAREKIN

eduzitegies

ANTILLA

jatebidea

Albareda Kalea, 2 - Tel. 943 33 23 00

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Fabrika Agote Industrialde Agote, 5. 20740 Zestoa	Erakusketak San Prantzika, 1. 20800 Zarautz	Alta Lertxundi, 21. 20810 Orrio Tel: 943 89 49 36
--	---	---

ARISTERRAZU

jatebidea

Andatza auzoa - AIA
Tel. 943 83 45 21

Gabon

TABERNA

plater kochinako pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

Katu Horia

BRASINDEKO HURRO

ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIAN
605 67 64 35

Automóviles ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

Itzitalu berriak eta ia berriak salga

ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 50

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

ardoak, urdaiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

943 83 09 84

aita lertxundi, 36
ORIO

Luis Trekuk bezala: *gora Errepublika!*

1

Apirilak hamalau Republika Eguna urtero haren falta oroitzen diguna, Espainiako gerrak izorratu zuna, monarkia betiko uxatuko duna, ekar liezagukeena guri askatasuna.

2

Borbon ta Urdangarin hori da koadrila, bar-cenas ta bar-cinas lapurreta pila. Monarkia aspaldi dago erdi hila, Trekun espiritua berpiztu dadila, zerbaiten hasiera bedi apirila.

3

Erregeei egiten zaie berorika, gure artean berriz zuka edo hika. Berdintasuna behar degu aldarrika, handikiak uxatu ditzagun harrika eta sortu dezagun Euskal Republika!

334

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak

June Aldai,
Alazne Arruti,
Antonio Campos,
Josu Galdos,
eta Eider Zubelzu

Laguntzaileak

Iñaki Iturain
eta Garbiñe Manterola

Diseinua

Karkara taldea

Banatzailak

Kattalin Bollaín eta
Esti Uranga (Orió)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.000 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



ZUZEU

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Birziklatzea: udalaren konpromisotik herritarren betebeharrak

Urtero Orioko udalak 800.000 euro inguru ordaintzen ditu hiri hondakinen kudeaketan, berezita nahiz nahastuta dauden hondakinak jasotzen eta horretarako beharrezko baliabideak mantentzen.

Urola Kostako Udal elkarteak jasotzen ditu ontzi arinak, papera, beira, olio eta hondakin organikoa. Orioko Udalak jasotzen du beste guztia, errefusa, berezi ezin dena eta berezi ahal izan arren herritar askok bereizten ez dutena; dena nahastuta. Edozeini deitzen dio atentzioa kudeaketaren gastu ekonomikoak, eta birziklapen tasen bilakaerak? Hemen datuak: %22a 2010ean, %27a 2011an, %31a 2012an. Zifra baxuak oso, arduratzekoak, larriak.

2012an zehar *Ez da marroia, birziklatzea beharrezkoa da* kanpaina jarri zuen abian udalean ordezkariak duten hiru taldeek eta Oriko Zero Zaborrek osatzen duten Hondakinen mahaiak. Helburuak bi: gehiago birziklatzea ehunekoa igotzeko eta hori lortzeko beharrezko baliabideak eskura jartzea. Herritar guztien eragiteko konpromisoa hartzen zela adierazteaz gain, hondakinen kudeaketa bakoitzaren betebeharrak dela gogorazi zen etxe guztietara bidali zen gutun hartan. Birziklatzen ikasteko gogoak zue-nari horretarako antolatu nahi ziren ikastaroetan izena emateko aukera ere ematen zitzaion idatzi berean.

Ikastaroetan parte hartzeko prest legokeen ehun herritar baino gutxiagok eman zuen izena orduan. Azoka eguntan banatutako edukiontzia eta aurre-

tik banatutakoak kontatuta egun herritarren %45ak bakarrik du hondakin organikoak bereizteko edukiontzia. Ondorio bakarrera garamatza horrek: baliabideak emanda ere ez garela ehunekoa igotzeko gai izango denok birziklatzen ez dugun bitartean.

Denok dakigu behin sortutakoan hondakinei irteera eraginkorra birziklapenak ematen diola. Hori horrela, nola ulertu daiteke oraindik jende askok ez birziklatzea udala horretarako baliabideak ematen ari denean? Sortutako hondakinen %70etik gora nahastuta botatzen jarraituko dugu zaborren eztabaida kalean egonda ere?

Hondakinen kontua guztion erantzukizuna da eta ezin da inolaz ere zalantzan jarri birziklatzea guztiok dugun betebeharrak dela; aitzakiarik ez duen betebeharrak; birziklatzeak eta ingurunea ez kutsatzeak derrigorrezkoa izan behar duelako eta ez borondatezkoa. ■ **Orioko Bildu**

Inor ez Arraunetxeko medikuntza zerbitzuaren lehiaketa publikorako

Ostiralean amaitu zen Arraun eta Piraguismoko Teknifikazio Zentrorako medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzurako eta aisialdi zerbitzurako lehiaketetara proposamenak aurkezteko epea.

EAJko Udal Taldeko kideok aurreikusi genuen prozesu hauek ez zutela emaitza onik izango. Izan ere, medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuaren lehiaketa hutsik geldituko da eta aisialdi zerbitzurako lehiaketara proposamen

bat soilik aurkeztu da.

Lan mundua dagoen bezala egonda, horrelako lehiaketetara proposamen mordoak aurkezteak da normalena gaur egun. Horrexegatik, proposamen bat edo bat ere ez aurkeztu izanagatik, bi lehiaketa hauek hasieratik gaizki planteatuak izan direla ondorioztatzen dugu EAJko kideok.

Bere garaian salatu genuen, Kirol Batzordera proposamen berriak –ez teknikoak ez politikoak– onartuko ez zituen testua aurkezteak. Baldintza plegu horien onarpenarekin zentroaren garapen integrala eta osoa ez zela nahi zirudiela.

Kasualitatea, horretan arrazoirik ez izatea atsegingo genuke, horrela Tenifikazio Zentroak bere teknifikazio funtzioa burutu ahal izango luke, hasiera hasieratik diseinatu ziren zerbitzuak eskainiz. Baina gure agintarien gaitasun ezak eta kudeaketa kaxkarrak gauden egoera zailera eraman gaituzte.

Berriz ere agerian utzi nahi dugu Bildu Udalak kudeatzen igaroko dituen lau urteen ostean utziko duen egoera politiko-ekonomikoak asko kezkatzen gaituela; eta hori, zoritxarrez, oriotar guttion artean ordaindu beharko dugula.

■ **Orioko EAJ**



Karkararen laguntzaileentzat Arkuperen bonoen zozketa



Lehendabiziko bi bonoak zozketatu ditugu eta hauek dira sarituak:

- **Pako Imaz Zuazberro (Iparragirre Janari-dendan 30€)**

- **Juan Antonio Garate Aldaz (Loidi Janari-dendan 30€)**

ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO!!!

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 36 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:..... Posta kodea:..... Tel.:.....

Kontu korronteko zenbakia:

Anibarko Portuko gunearekin, martxan da auzokonposta

Beste bi gune ere egingo dituzte epe motzean: Abaromendin bat; Karela kiroldegiaren eta Orioko Herri Ikastolaren artean bestea. Denera, 56 familiarentzako konposta egiteko modua jarriko dute horrela

Urtarrilaren 30eko lehen bileran auzokonposta egin nahi duten herritarren herriko mapa egiten hasi, eta bi hilabete eskasera jarri da martxan Orioko estreinauko auzokonposta gunea. Anibarko Portuko 21 familiarentzako prestatu du parke alboko eremua Urola Kostako Udal Elkarteak, Espora enpresaren birtartez. Zazpi familientzako konposta egiteko bi edukiontzi -materia lehorra gordetzeko beste bi edukiontzi z gain- jarri dituzte momentuz.

Behin gunea eraikita, martxa hartu birtarteko bidea elkarrekin egingo dute Orio Zero Zaborrek, Udalak, Esporak eta auzoko bizilagunek. Horrela, martxoaren 2lean egin zuten aurreneko auzo-bilera, besteak beste, autokonpostaren eta talde funtzionamenduaren nondik norakoaz aritzeko. Taldeko lehen ordezkaria aukeratuta, hurrengo egunean bertan hasi ziren konposta egiten. Orditik hona familia gehiagok agertu du auzokonpostarako interesa eta epe motzean erabiltzaileen kopurua handitzea espero dute ekimenaren antolatzaileek.

Abaromendin bigarrena

Abaromendi mendiaren magalean, babes ofizialeko etxeen parean, jarriko dute beste auzokonposta gune bat, Abaromendiko 21 familientzako egokitutakoa. Zortzi familia hasiko dira oraingoz etxeke hondakin organikoak konposta bihurtzeko prozesuarekin.

Kasu honetan, auzolanean eraikiko eta kudeatuko dute auzokonpostako gunea. Bizilagunek berek egokituko eta altzako dute gunea: lurra berdindu; lurrean sarea jarri sagu, sator eta gainerako animaliei edukiontzirako bidea ixteko; eta itxitura egin. Orio Zero Zaborrek eman go dizkie aholkuak. Urola Kostako Udal Elkarteak ekarriko ditu ondoren edukiontziak, eremua prest utziz bizilagunak auzokonposta egiteko.

Apirilaren 13an egingo dute auzolanari ekiteko auzo-bilera 09:00etan hasita.

Herrigunean hirugarrena

Kiroldegiko maldan jarri nahi zuten herriguneko lehendabiziko auzokonposta gunea. Hura baina zaindutako eremua denez, Ingurumen Batzordeak erabaki-



Hiru auzokonposta gune jarriko dira oraingoz Orion. KARKARA

ta, Ikastola eta Karela arteko zelai zatian jarriko dute 14 familiarentzako gunea.

Konpostari elkarteak emango die aholkularitza-zerbitzua erabiltzaileei. Apirilaren 17rako -19:00etan, Kultur Etxean -deitu du auzo-bilera. Dena den, inguruko bizilagunei eta urte hasierako bilera agertu ziren herritarrei gutun

Apirilaren 13an, 09:00etan, - egingo da Abaromendiko auzobilera; hilaren 17an, 19:00etan, Kultur Etxean, herriguneko

bana bidaliko die Udalak bilera horren berri eman eta bertarako gonbita egin.

Hortik aurrerakoa, auzolanean egiteko litzateke. Auzolanerako prestutasunik ez balego, Orio Zero Zaborrek hartuko lituzke zereginok beregain.

Bestelako argibideak

Auzokonposta gune bakoitzeko erabiltzaileen araberakoa izango da talde funtzionamendua.

Horrez gain, autokonpostarik egiteko aukerarik ez duten bizilagunek lehentasuna izango dute etxean bertan lur-saila dutenen aurretik. Etxean baratze, berdegune edota lorategi txiki bat duten familiak, hortaz, zerrendaren atzeko aldean joango dira.

Aurrerantzean

Auzokonposta egin nahi duten herritarrek zein diren eta non dauden biltzen duen herriko mapa osatzen joan nahi du Orio Zero Zaborrek. Auzokonpostaren onurez herritarrak berak konturatuko direla-eta, gune gehiago egiteko aurreikuspena egiten du Udaleko Ingurumen Batzordeak ere. Tartean legoke Dikekoa. Izan ere, konposta egin nahi duten bizilagunak badaude Diken, baina Kostako lurak direnez, haien baimenaren zain dago Udala. Bide horretan, bio-hondakin marroiek gero eta hondakin organiko gutxiago jasoko lukete.

Auzokonposta egin nahi duten familiek Udalera jo beharko dute, bertan ize-na emateko, telefonoz adieraziz edota bulegoak@oriokoudala.com-era idatziz.

Belaunaldien arteko harremanak landuko dituzte ikasleek errezetekin

Berekin bizi ez den adinekoekin jatekoak prestatu beharko dituzte ikasleek eta gero fitxa bat bete nola egin duten azalduz. Txikiei pailazoek emango diete belaunaldien arteko harremanaren berri

Eusko Jaurlaritzak, Orioko Udalak, Matia Institutoak, Farfara elkarteak, Orioko Herri iastolak eta Zaragueta Herri Eskolak lagunduta, egitasmoa jarri dute martxan umeak eta adinekoak, bi belaunaldi, gerturatzeko.

Herriko umeekin elkarbanatu zituzten beren esperientziak Esperientzia Eskolakoek iaz, Belaunaldien Arteko Egunean trikitalariek kalejira eginuz,

bertsolariak entzunez eta mandalak margotuz, baina aurtien ikasleetara mugatu nahi izan dute proiektua.

Helduenek -LH 4-5- errezeten bidez landuko dute belaunaldien arteko harremana. Horretarako, ikastetxeetan *Berminghameko errezetak* liburua banatu dute. Matia fundazioko Birmingham egoitzan dauden eta demenzia daukaten adinekoek emandako errezetekin

osatu dago liburua. Liburua etxera eramane eta berekin bizi ez den adinekoren batekin -aiton-amona, bizilaguna, osaba-izeba, lagunak...- errezeta horietako bat, zein beren gustukoren bat prestatzea da helburua. *Adinekoen jakituriaz, janaria prestatzen eta jakiez gozatzen erakutsiko diete gaztetxoei plater horiek ekartzen dizkieten orotzapenak partekatuz eta baliagarriak izango dira iragana, oraina eta etorkizuna konektatzeko*, dio Birmingham egoitzako Virginia Oliván monitorea.

Otordu hori prestatu ondoren, fitxa bat bete beharko dute sukaldariak zein izan diren, zein osagai erabili dituzten, nola prestatu duten... azalduz. Apirilaren 30era arteko epea izango dute eta adin tartea handia izan arren, elkarrekin gauzak egiteko aukera badutela eta elkarrengandik asko ikas dezaketela ikusiko dute proiektu horren bidez.

Pailazoak txikientzat

Bestalde, txikientzako -LH 1 ingurukoentzako- pailazoen bi saio izango dira gai bera lantzeko: apirilaren 16an, 10:00etan, Zaraguetan eta 17an, Ikastolan, 11:00etan.

Kriki eta Kroki pailazoak Pedagogiako bi ikasle dira eta une atseginen bitartez asmo pedagogikoetara iristea dute helburu bizitzako balioak transmititzuz: laguntasuna, errespetua, afektibitatea, elikadura osasuntsua, aniztasuna, berdintasuna, sentimenduen adierazpen askea, irudimena... Belaunaldien arteko harremana gaitzat hartuta prestatu dute ikuskizuna eta haurraren parte hartzea sustatuz horiek izango dira protagonista.



Bi eskoletan banatu dituzte errezetaz betetako liburuak. ZARAGUETA HERRI ESKOLA

LABUR

Kultura

Maialen Sarasuaren film laburra

Donostiako Giza Eskubideen XI. Zinemaldia izango da apirilaren 19tik 26ra bitartean. Han ikusi ahal izango da Maialen Sarasua oriotarraren *Donde nunca pasa nada* film laburra. *Libre te quiero* filmarekin batera emango dute Viktoria Eugenia antzokian, igandean, apirilaren 10ean, 19:00etan. Sarrerak 4,10 euro balio du eta aurrez erosi ahal izango da helbide honetan: www.kutxasarrerak.net-en.

Oteizaren bideo emanaldia

Apirilaren 9an bete ziren hamar urte Jorge Oteiza artista oriotarra hil zela. Oteiza gogora ekarri, *Oteiza tiembla* dokumentala eskainiko dute apirilaren 18an, Salatxo aretoan, 19:00etan. Oriora, jaioterrira, ekarriko du Oteiza Felix Marañak eta Nuria Ruiz Cabestanyk zuzendutako lanak. Izan ere, umetako garaia eta Oriorekin izandako harremana islatuko ditu, hemen eraikitakoa baita artistaren izatearen zati bat. Benito Lertxundiren musikak eta Jorge Oteizaren hitzek lagunduko dituzte irudiak, bai idatzitakoak baita ahoz esandakoak ere.

Zerbitzuak

Taberna eta supermerkatua

Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontratatzeke deia egin du Udalak. Kontratuaren iraupena abenduaren 13ra artekoa izango da eta 15 urtera arte luzatzeko aukera egongo da. Urteko gutxieneko kanona 15.000 eurokoa da -BEZ kanpo-, baina lizitatuzaileek kopurua hobetu dezakete. Baldintza-orria Udalgunean edo idazkaritzan eskuratu ahal izango da eta han zehaztuko dute aurkeztu beharreko dokumentazioa. Proposamenak udaletxean aurkeztu behar dira maiatzaren 2a baino lehen.



Belaunaldi askotako pertsonak joan ziren Abaromendiko parkean zuhaitzak landatzera. KARKARA

Zuhaitzak landatzen hasi dira Abaromendiko berdegunean

Martxoaren 23an, Herrio Natur Taldeak zuhaitzen landaketa egin zuen; aurten, Abaromendiko parkean. Adin guztietako oriotarrak ibili ziren zuhaitzak eta landareak lurrean sartzen

Martxoaren 23an, larunbatarekin, egin zuten herritar askok 2013ko Zuhaitz Eguna, Herrio Natur Taldeak antolatuta.

Udalak Herrio Natur Taldeari Abaromendi inguruko parkearen egoera nolakoa zen azaldu zion 2012ko urte bukarran; taldeak herriko beharrak aztertu ondoren, berdegunea egokitzeko proposamena egin zion Udalari; *herrigunetik gertu dagoen berdegunearen erabilera indartuko duen proiektua, hain zuzen ere. Proiektua garatzeko herritarren partaidetza ezinbestekoa dela iritzi diogu eta horregatik antolatu dugu zuhaitz landaketa hau. Hurrengo urteetan ere halako ekintzak antolatuko ditugu denon artean Abaromendi parkea osatu arte, azaldu dute Herrikoek.*

Aurtengo landaketa eguraldia lagun

zutela egin zuten. Hala, inguru horretara egokitutako zuhaitz espeziak aukeratu dituzte Herrikoek: artea, ametza, zuhandorra, gurbitza, erramua eta baserramua. Dena dela, parkeko zuhaitzen landaketa 2016an bukatu nahi dute Herrio Natur Taldeak eta Orioko Udalak. Oriotarrek Abaromendiko parkea egunero erabiltzea dute helburuetako bat Herriko kideek. Gauzak horrela, inguruari bizitasuna eman eta herritarrek beste gune berde atsegina izatea lortu nahi dute.

Horrez gainera, herritarrek tokia bere sentiaraztea, bizidunekiko sentsibilizazioa sustatzea, hemengo espezieek erabiltzeko parke erabilgarria edukitzea eta, belarra zapaltzeko beldurrik gabe, estetikoki erakargarria izango den gune bat

sortzea dira beste helburuetako batzuk.

Lusarbeko hezegunea

Mendizorrotz inguruan, Lusarbeko aisialdi-gunean urputzutxo naturala dago. Errekasto bat igarotzen da handik, eta ura pilatu egiten da. Herriotik esan dutenez, *putzu hori egotearen ondorioz ihiak azaldu dira putzuaren inguruan.*

Inguruan, Lusarbeko aisialdi gunean, etxetxoaren atzeko aldean, zuhaitzak landatu zituzten Orioko hainbat herritarrek 2008ko martxoaren 15eko Zuhaitz Eguna aitzakia hartuta. Baina, 2012an legea aldatu zenez, zuhaitz horiek hortik kendu egin behar direla esan dio Iberdrola enpresak Orioko Udalari. Horren ondorioz, zuhaitzak kendu ahal izateko, 772 euro eman dizkio Iberdrolak Orioko Udalari, kalte-ordainetan.

Horren aurrean, Orioko Udalak eta Herrio Natur Taldeak elkarlanean, Lusarbeko aisialdi guneko hezegune txikia atonduko dute, animalia-espezieak erakartzeko. Bide batez, jendea informatuko dute, panel baten bidez. Bertan hezegune horren zergatia eta zeregina azalduko da, letra eta irudi erakargarriak erabiliz. *Panela egurrezkoa izango da, Lusarben dauden mahaiaik, jolasak eta gurpildun aulkien bidea diren bezalaxe, esan dute Herrikoek. Horri esker, Mendizorrotzeko berezko biztanleak nortzuk diren ezagutuko ditu bisitariak.*

Denborarekin, artifizialki sortu den ur-gunea natural egitea espero du Herriok, eta egun dauden belar-espezieez gain, uhandreek eta arrabioek erabili ahal izatea. Esan dutenez, agian, beste anfibio-espeziaren batek ere aurki dezake ugaltzeko toki erakargarria –baso igel gorriak, kasu-. Intsektuek erabiltzea ere posible litzateke eta, ondorioz, bestelako animaliak ere erakarriko lituzkete –saguzarrak, adibidez–.



Txapelak buruan, elkarrekin igo ziren podiumera bi irabazleak. KARKARA

Maite Maiora eta Ionut Zinca Orioko 3. Mendi Lasterketako txapeldun

Iazko denbora hobetu ez arren, parte hartzea inoizko handiena izan zen Orioko Mendi Lasterketan, 350 korrikalari guztira. Sonia Alonso eta Ibon Berasaluze izan ziren oriotarrik azkarrenak

Martxoaren 24an, igandearekin, jokatu zen Orioko 3. mendi lasterketa. Eguraldia lagun izan zuten korrikalariak eta ibilbidean ez zitzaion animorik falta izan, jende asko gerturatu baitzen zirkuira.

Dortsal guztiak banatuta zirela hasi zen lasterketa goizeko 10:00etan; 350 korrikalari guztira. Hala ere, guztiekin izan zituzten 20 kilometroak bete eta helmugara 314 korrikalari iritsi ziren.

Denetan azkarrena iazko irabazlea izan zen: Ionut Zinca Sestao, Alpino taldeko gasteiztarra. Iaz baino denbora gehixeago behar izan zuen proba betetzeko eta ordubete, 30 minutu eta 27 segundokoan geratu zuen kronometroa. Bigarren duela bi aste Aiako mendi lasterketa irabazi zuen Hassan Ait Chaou billabonatarra iritsi zen, Zinca taldekoa baino minutu eta erdi beranduago. Hirugarren, berriz, Iban Letamendia oñatiarra izan zen ordubete, 35 minutu eta 16 segundoko denborarekin. Aipat-

zekoa da lehen bost korrikalarietatik hiru Sestao Alpino taldekoak izan zirela.

Nesketan iaz bigarren izan zen Maite Maiorak aisa irabazi zuen lasterketa. Ordubete, 47 minutu eta 36 segundo behar izan zituen ibilbidea betetzeko Mendaroko korrikalariak; Uxoia Irigoien getariarra izan zen bigarren, ia 16 minutura. Hirugarren, Rafaella Ciavola gasteiztarra iritsi zen helmugara.

Oriotarrak

Oriotarren artean azkarrena Ibon Berasaluze izan zen, 11. postuan, ordubete, 39 minutu eta 34 segundoko denborarekin. Xabi Garate izan zen bigarren oriotarra, Berasaluzerengandik 7 minutura; eta Karlos Mintegi hirugarrena, 14 minutura. Sonia Alonso izan zen oriotarretan neskarik azkarrena, bi ordu, 20 minutu eta 7 segundoko denbora eginda. Orioko bigarren neska, berriz, Ainhoa Imaz izan zen eta hirugarrena Norma Villabañez. Lan ona, beraz, oriotarrena.

LABUR

Arrauna

Hiru bandera batel ligan

Emaitza onekin bukatu du Orio Arraunketa Elkarrekin Gipuzkoako Batel Liga. Txapelketak izan dituen zazpi kategoriatik hirutan bandera lortu dute oriotarrek: infantil-kadete nesketan, kadete mutiletan eta senior mutiletan. Senior neskek eta jubencil mutilek, bestetik, brontzezko domina zintzilikatu zuten apirilaren 7an Mutrikan. Arraunlariak denboraldi gogorra izan duten arren, infantil-kadete neskek eta kadete mutilek nagusitasunez irabazi dituzte ia estropada guztiak. Senior mutilek, ordea, hiru puntuko alde baina ez dute izan bukaerako sailkapenean. San Pedrorekin eduki dute lehia estua liga hasi eta bukatu arte, baina, azken lau estropadetatik hiru irabazita, bandera Oriora ekarri dute. Datorren hitzordua, Gipuzkoako txapelketan izango dute Orioko arraunlariak, Pasaian, apirilaren 13an eta 14an. Onenen artean sailkatzen direnek, astebete beranduago, Euskadiko txapelketa jokatu dute Legution.

Futbola

Azken txanpan sartuta

Denboraldi txukuna ari dira egiten Orioko Futbol Taldeko gizonetako erregionalen taldekoak. Josu Solaberrieta entrenatzaile lanetan ari da aurten lehenengo eta emaitzek nahikoa laguntzen diote. Bost jardunaldi baino ez zaizkie geratzen eta bosgarren dira sailkapenean. Azken partida Allerruren aurka 4-0 irabazi zuten Aste Santuko etenaldia baino lehen. Datozen bost jardunaldietatik lautan atzetik dituen taldeen aurka jokatu beharko du Oriok. Aurretik duen taldearen, Martuteneren, kontrako partida apirilaren 21ean jokatu dute Donostian. Sei puntura dute hirugarren postuan dagoen talde donostiarra. Lehenago, ordea, Behobia hartuko dute etxean, apirilaren 13an, Mendibeltzen.

Pilota

Pala txapelketa martxan

Pazkoa asteen hasi zen Orioko laugarren pala txapelketa. Guztira hamar bikote izango dira eta, hasteko, bi multzotan banatu dira bikoteak. Lehenengo fasean denek elkarren aurka jokatu dute, joan-etorrian, guztira zortzina partida jokatu. Zortzi aste pasatakoan, multzo bakoitzeko bi bikote onenak pasako dira finalerdietara. Lehiak ostiral iluntzetan izango dira, 18:00etatik aurrera. Maila ona aurreikusiko dute antolatzaile-



KARKARA

“Beti nago prest estropadaren bat edo beste jokatzeko, jakina”

Unai Lizarralde

Arraunlaria

Bilboko itsasadarrean jokatzeko den lehiarik berezienean, Ingeniariak-Deustu estropadan, aritu da aurtengoan Unai Lizarralde arraunean, zortzikoan. Lau urteren ondoren, aurrenak izan ziren, gainera, Bilboko udaletxe pareko helmugan.

L.BERASALUZE

Ingeniaritzako ikasketak egiten ari da Unai Lizarralde Donostiako EHU'n; bigarren urtea du han. Orio Arraunketa Elkartean, berriz, zazpi bat egin ditu. Ikasketak eta arrauna batu zituen martxoan

ren 28ko Ingeniariaren eta Deustuko ikasleen arteko estropada berezian.

Nondik dator lehia hori?

Bilboko errioari bixitasun pixka bat emateko sortu zen ekimena, uste dut. Uretako jarduerarik egiten ez zela-eta, estropada bat antolatzea pentsatu zuten

duela 33 urte. Erronka bota zion Bilboko Ingeniariaren Eskolak Deustuko Unibertsitateari. Zergatik hasi ziren bi horiek, eta ez irakasleak eta psikologoak? Ez dakit. Gizonezkoen arteko lehia izango zen hasiera hartan eta gizonezko gehientzuen dituen ikasketak izango dira ingeniariak. Dena den, urteak dira guk neska bat, Maialen Arrazola, dugula patroia.

Cambridge eta Oxforren arteko lehia bizi horren moduko zerbait egin nahi da.

Nolatan jokatu duzu aurtengoan?

Arkaitz Goñiren gonbita jaso nuen, hura ibiltzen baita saltsa nahasten. Entrenatzaileak –Raspas elkarteko prestatzailea den berbera da gure kasuan– erabakitzen du gero zein arituko den zortzikoan eta zein geratuko den kanpoan.

Ikasleek nahiz ikasle-ohiek har dezakete parte estropadan eta ontzi bakarra, zortzi lagunekoa, osatzeko arraunlari asko izaten da. Urtero parte hartzen dute batzuek, eta, zorionez, gurean gazte batzuk sartu gara orain. Talde polita eta gaztea osatu dugu. 22-23 urtekoa da gure batez beste adina; 33ren bueltakoa da Deustukoena.

Pike handia al dago?

Bai. Pentsa, duela gutxira arte baziren estropada hori jokatzeko hutsagatik bakarrik matrikulatzen zirenak; ikasketei kasu zipitzik egin gabe.

Prestaketa berezirik egin al duzue?

Lauzpabost igandetan elkartu gara, talde gisa jarduteko, uretan entrenatzeko. Dena den, denok arraunlariak gara gure taldeetan eta forma fisikoari dagokionez, sasoian gaude.

20 aldiz irabazi du Deustuk; 13.ena izan duzue ingeniariok aurtengoarekin.

Nola joan zen proba?

Ondo. Lau urtez atzetik izan ondoren, azkarrenak gu izan gara aurtengo edizioan. Zortea ere aldeko izan dugu-eta.

Datorren urtean berriz ere hartuko dut parte ahal izanez gero. Beti nago prest estropadaren bat edo beste jokatzeko, jakina.

Ikusle asko izaten al da?

Bai, errio bazterrean begiratu eta harritu samar geratu nintzen; jende dezente aritu zen gu animatzen.

Sari-banaketa ere animoso joan zen. Entsaladera formako kopa bat eta guzti eman ziguten.

Horrez gain, bada Bilbon zubi bat estropada honetan bakarrik altxatzen dutena –arazo elektriko bat tarteko, aurretik kale egin badu ere– eta ikusgarria izaten da hori ere.

Ospakizunak ere izango zenituzten...

Ingeles estiloko jatetxe batetara eraman gintuzten bazkaltzera; maiordomo eta igogailuko mandatari eta guzti! Luxuzko bazkaria egin genuen, kontxo!



X. GAITON

“Ikasleek ikasketekin jarrai zezaten zen gure erronka duela 30 urte”

Juanmari Etxabe

Lardizabal eskolako irakasle ohia

23 urte luze egin ditu Juanmari Etxabe zarauztarrak irakasle Lardizabal eskolan (1985 ikasturtean hasi eta 2008. goan bukatu). 5 urte pasa dira aurretiko erretiroa hartu zuela eta oraindik ere eskolari lotuta jarraitzen du, astean behin *bisita* eginez.

L.BERASALUZE

Batxilergo ikasketak bukatu eta Irakas-kuntzako ikasketak egin zituen Juanmari gazte denboran. Ikasketak finantzatzeko, baina, lan egin behar eta eraikuntzak eman zion lehen soldata, irakasle izateko prestatzen ari zela.

Nola gogoratzen dituzu irakasle izateko prestakuntza eskola haiek?

Ikasle dezente ginen gelako: 30 inguru; pila garai hartarako. Lardizabal eskolako zuzendari Xabier Gaiton han zen, ni-

rekin batera. Zientzietako adarra aukeratu zuen berak bigarren urtean; nik, aldiz, hizkuntzetatik jo nuen.

Eskolatik atera bezain pronto hasi al zinen lanean irakasle?

Bai. Orioko Zaragueta eskolan aritu nintzen lehendabizi, gaztelera nagusi zen garaian euskara irakasten. Bi ikasturte egin nituen han eta beste horrenbeste gero Zarauzko Orokietan. Plaza hartzeko orduan Zarautz, Getaria eta Aia jarri nituen nire lehentasunetan eta Lardizabalen egin zidaten lekua.

Aian hasi eta Aian bukatu.

Primeran hartu ninduten Aian. Base-rrietako ume pila izaten zen orduan eskolan; herrigunekoak oso gutxi ziren, eta giro berezia sortzen zuen egoera horrek; oso ondo konpontzen ginen. Gurasoek aginte makila guri ematen ziguten eta seme-alabei irakasleei kasu egiteko esaten zieten. Orain baino zorrotzago jokatzen zen orduan.

“Ikasle faltan, bi-hiru maila elkartu behar izan genituen behin baino gehiagotan. Oso aberasgarria zen nahasketa hori; asko ikasten zuten elkarrengandik-eta”

“Gizartea eta eskola aldatu badira ere, ni gutxi kanbiatu naute urteek: zorrotz jokatu izan dut beti”

Horrez gain, oinarrizko ikasketak bukatu eta lanera joaten ziren ikasle gehienak, baserrira edota etxetik kanpora, diru-iturria behar zelako. Ikasketekin jarrai zezaten saiatzen ginen gu; hori zen gure erronka eta urteen poderioz lortu dugu joera aldatzea.

Asko aldatu al da egoera?

Dezente. Alde batetik, kanpoko ikasle nahiz irakasle asko etortzen da gaur egun; gure garaiko irakasle bakarra geratzen da orain: Gaiton. Gerora sartu dira mordoxka. Ikastetxe batetik bestera ibiltzen dira horietako asko, eta, besteak beste, eskolaren funtzionamenduan eragiten du horrek. Azken batean, zaila da emozionalki lotzea.

Dena den, gizartea eta eskola aldatu badira ere, ni gutxi kanbiatu naute urteek: zorrotz jokatu izan dut beti.

Horrez gain, urte batzuk atzera egin da, bi edo hiru maila elkartu behar izan genituen behin baino gehiagotan, ikasle kopurua jaitsi zelako. Oso aberasgarria zen nahasketa hori; asko ikasten zuten elkarrengandik, bi norabideetan.

Azken urteotan gora egin du ikasle kopuruak nabarmen eta adin bakoitzean gela bat, gutxienez, osatu da. Halere, joera hori aldatzen hasia dela uste dut.

Lardizabalekin lotzen zintuen haria etenda al dago gurtiz?

2008ko ekainean agurtu nituen ikasleak –aurten atera dira Aiatik–; abuztuan irakasleak –afari eder bat ere egin genuen elkarrekin–; baina astean behin-edo joaten naiz eskolara, liburutegia katalogatzen. Aurten bukatuko dut lantxo hori, ustez, beti liburu berriak datozen arren.

Apirilaren 27 eta 28an izango da Landare Berezien Azoka Iturraranen

49 mintegik hartuko dute parte lorategi botanikoan. Horretaz gain, Aiako plazan ere izango dira landareekin lotutako postuak, baita lore apainketa tailerra ere

Urteroko ohiturari jarraituz, Landare Berezien Azoka izango da apirilaren 27an eta 28an, Iturrarango Lorategi Botanikoan. Azokako parte hartzaileak landare berezien bildumagile espezializatu profesionalak dira. Ohiko mintegietatik kanpoko landare bereziak, ezezagunak, antzinakoak eta lortzeko zailak direnak jartzen dituzte ikusgai Aian beste lekuetan merkaturatu aurretik.

Urtez urte handitzen joan da mintegi kopurua, 2003an 37rekin hasi zirene eta 49 izango dira aurten. Berrikuntzak ekarriko dituzten gehienak Frantziatik etorriko dira: primula eta helleborus bildumarekin Barnhaven; bougainvillea eta lantanekin Cannebeth; zuhaitz eta zuhaixkekin Côte Sud des Landes; antzinako larroekin Roses anceienes du Jardin de Talos; eta uretako eta zingiretako landareekin Thierry Duval. Bizkaitik landare erabilgarriak ekarriko ditu Elemental mintegiak eta Kataluniatik Sala mediterraneoko eta hego hemisferiokoak Graupera/Eco Gardening-ek.

Bisitari asko etortzen da azokara –gehien etorri diren urtean 10.500– eta urrutitik gainera: Kanariar uharteak, Bartzelona, Malaga, Holanda... Ekoizleak eta zaleen elkargune da azoka. Bisitariak zalantzak argitzeko aprobeztatzen dute eta saltzaileek eskaerak jasotzeko.

Autobus zerbitzua

Azoka 10:00etatik 18:00etara egongo da irekita eta bi aparkaleku egokituko dituzte: Aian eta Orion. Handik doako autobusak ibiliko dira. Trenez gerturatuz gero, Zarauzko Karmeliten komentu aurreko geltokian hartu ahal izango da autobusa. Txartelak azokako sarreran salduko dituzte lau eurotan –12 urtetik beherakoek doan–. Nahi izanez gero, erositako landareak aparkalekura garraiatuko dituzte eta azokan jan-edaneko postuak ere egongo dira.

Antolatzaileek jakinarazi nahi duteloreategia inguratzen duen itxiturako burdinazko ateetan giltzarrapoak jarriko dituztela eta sarrera bakarra bidegurutze-ko izango dela, beraz, oinezkoak ezingo direla beste ate horietatik sartu azokara.



Askotariko landare motei begira egoten dira Iturraranera joaten diren bisitariak. ARRETA PAGOETA

Ekintza osagarriak Aiako plazan

Aiako herriaren eta Pagoetako parke naturalaren arteko lotura sendotuz joan da urteotan eta indartzeko azoka osagarria izango da Aiako plazan, apirilaren 28an 10:00etatik 15:00etara.

Bisitari asko etortzen dira azokara-gehien etorri diren urtean 10.500- eta urrutitik gainera: Kanariar uharteak Bartzelona, Malaga, Holanda...

Batetik landareekin zerikusia duten produktuen erakusketa eta salmenta egongo da eta honakoak jarriko dituzte: sasoiko landareak; landare usaindunak eta sukalderakoak; eztiak; xaboi eta olio naturalak; zizareak eta ongarri organikoak; ongarri, konpostaje eta hazi ekologikoak; lore prentsatuak; botanikan oinarritutako akuarelak; aloe vera eta sendabelar produktuak; eta balkoietako baratzagintzarako zutikako moduluak.

Gainera, hitzaldiak ere eskainiko dituzte postuetan: 11:30ean ongarri, konpostai eta hazi ekologikoei buruzkoa; 12:00etan sendabelarrena; lore prentsatu eta zeramikari buruzkoa 12:30ean; 13:00etan zizare hazkuntza eta ongarri organikoari buruzkoa; eta 13:30ean basalandareen erabilera gastronomian izango da gaia.

Bestalde, Ikebana –lore apainketa japoniarra– tailerrak ere izango dira Kultur Etxean 10:30etik 12:00etara eta 12:30etik 14:00etara. Gehienez 20 lagunek hartu ahal izango dute parte talde bakoitzean eta aurrez izena eman behar da euskado@gmail.com helbidean. Ikastaroak 15 euro balio du eta trukean materiala eta apaingarria jasoko dituzte. Gainera, goiz guztian Ikebana erakusketa egongo da kultur-etxean.

Euskalcomek, plazan, eskulanak egiteko aukera ere eskainiko du: paperezko loreak, etab. Horretaz gain, probatzeko auto eta moto elektrikoak eta gaztelu puzgarriak ere jarriko dituzte plaza inguruan.

Irado kizunak

Aste Santuko oporrak, eguraldi txarra, etxeko lanak egin ditugu –amak beti zerbait falta dela esaten badu ere– eta KARKARA-ko artikulua egiteko gonbita dudanez, hemen nago ohe gainean etzanda musika entzuten, ahizpa alboan eta zerri buruz idatzi pentsatzen. David Guettaren abestia entzuten ari garen bitartean bururatu zaigu ideia ona izan daitekeela gazteoi gustatzen zaigun musika eta literaturaren berri zuei zabaltzea.

Musika arloan 12-20 urteko gazteoi gehien gustatzen zaizkigun musika talde edo abeslariak hauek dira: David Guetta, Rihanna, Steve Aoki, Avicii, Sakana aldeko Hesian euskaldunak, Hardwell, Flo Rida, Nicki Minaj, Jose De

Rico, Henry Mendez, Dr. Bellido, Gatibu bizkaitarrak, tatuajez betetako Lil Wayne raperoa, Swedish House Mafia, Neruo, Calvin Harris, Maldita Nerea, Pitbull, Akon, Juan Magan, Wiz Khalifa, Cher Lloyd, Maroon 5, Betagarri gazteiztarrak, Justin Bieber, Fun, One Direction, Vendetta talde nafarra izen italiarra eduki arren, Armin Van Buuren, Tiesto eta Azealia Banks, besteak beste.

Baina dena ez da musika, tarteka irakurtzea ere gustukoa dugu –beharko, izebak ematen digun latarekin–. Gehien gustatzen zaizkigun gaiak gure adinarekin zerikusia dutenak dira, eta horien artean daude Blue Jeans, Sarah Dessen,

Federico Moccia erromantikoak, Laura Gallego eta Jordi Sierra y Fabra autore ezagunak, adibidez.

Hara, etxeko tinbrea, eta beti niri tokatzen zait jaikitzea, kontxo! Zein izango eta amona bisitan. Kontatu diogu zertan ari garen eta esan diot artikulua haur gorde egin beharko duela guri opari bat egiteko ordua iristen zaionean –amona, nire urtebetetzea laster da, ez ahaztu!–, hemen aipatzen dugun zerbait oparitu nahi badigu, adibidez David Guettaren disko berria, amona...

Eta ba al dakizu zer esan didan? Berari Benito Lertxundi, Mikel Markez, Los Panchos, M^a Dolores Pradera etabar gustatzen zaizkiola eta apuntatzeko guk ere. Eta bere urtebetetzea nirea baino lehenago dela. Bota digu ederra!



Txokoak eta jendea Txakolina eta txahala bukatu arte

Urtero bezala Txakolin Eguna ospatu zuten Aian pasa den apirilaren 7an. Eguraldia portatu zenez, jendetza bildu zen herriko plazan. Bi ordutan, 720 txakolin botila eta 1.400 haragi pintxo bukatu ziren eta herriko gaztagileen produktuak dastatzeko eta erosteko aukera ere izan zen. Argazkia: Sergio Cubero.



20. Herriaren errenta

Benta aldean dago Lusarbeaundi baserri errenazentista. XII. menderako baserria eraikita zegoenik ezin badaiteke ziurtatu ere, inguru horretan Lusarbe izenez ezaguna zen lursaila zegoen gaur egungo Lusarbeaundi eta Lusarbeardi baserriak dauden tokian. Bi etxebizitzatan banatuta dago Lusarbeaundi eta itsatsita, gaur egun txalet gisa erabiltzen den Upelaenea eraikina dago.

Lehen jabea Ganboa leinua zela dio 1550eko agiri batek eta oinordetzan hartu ondoren, zorrak kitatzeko, Orioko Kontzejuari saldu ziola Pedro Ortiz de Ganboak. Urte batzuk geroago, ganboatarrak salmenta desegiten saiatu arren, Valladolideko Kantzelaritzak jabetza Oriori zegokiola erabaki zuen, baina auziak gutxienez 1612 arte jarraitu zuen. Orioko Kontzejuak etxaldea errentan ematen hasi zenez pentsa daiteke ganboatarren asmoak ez zuela aurrera egin.

Maizterrek baserri lanak egiten zituzten eta Kontzejuarenak ziren lurretan zeuden animaliez eta zuhaitzez arduratzen ziren. Kontzejuarenak ziren baserriek garrantzia handia izan zuten Orioko Hiribilduaren garapenerako Lusar-

beaundiko lurretan artoa eta garia oso ugari zirelako. Bestalde, baserriok ezinbestekoak ziren Kontzejuaren finantzatarako Orioren diru sarrera nagusienak baitziren. Lusarbeaundiren errentarekin Orioko Kontzejuak bere diru sarreren %4-8 lortzen zuen.

Baserria Kontzejuarena izan zen bitartean errentan ematen jarraitu zuten, baina Konbentzioko Gerraren etorrerarekin eta Napoleondar Gerrarekin zorrak handitu zirenez, 1810. urtean saldu zioten orduko maizterrari. Gerora hark beste hainbat salmenta egin zituen, tartean gaur egungo jabearen gurasoak egin ziren zati baten jabe.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- ENBESKUNTZEN AHOULKARITZA
- ANBESKUNTZEN IRISGAIA
- ANBESKUNTZEN IRISGAIA
- ENBESKUNTZEN AHOULKARITZA
- ENBESKUNTZEN AHOULKARITZA
- AHOULKARITZA ENBESKUNTZEN AHOULKARITZA

Julio Matorraldo Etxepare
C/Alfonso XIII, 10
48940 BERRIO
943 24 00 17

b

BARAKA
estilo berria

Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Etxeko janaria

945 15 15 12
Aitor

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 90 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibañeta 4, beheko. 20810 Oriu



Euskal Herriko Unibetsitateko MKMko ikasleek erreportajea egin dute Orioko Curriculumaren inguruan. IBAN EGIGUREN

Orioko Curriculum ereiten



Oriotarren izaera bilduko duen material pedagogikoa osatu nahi du Orioko Curriculuma sortzen taldeak. **Orio 3ten 2.0 jardunaldietan** aurkeztuko dute, Orioko curriculuma sortzea helburu duen proiektua. Udaberrian egingo dituzten ekitaldien azken prestaketa lanetan harrapatu ditugu taldekideak.

**TESTUA: IÑIGO GAITON
ARGAZKIAK: IBAN EGIGUREN**

Orioko Curriculuma herritarren historia, tradizioa, nortasuna... bildu nahi dituen proiektu pedagogikoa da. Etorkizunean ondorengoei transmitituko diegunak kezkatzen gaitu, eta horren harira, nahitaezkoa ikusten dugu gure izaera definitzea; horrela, errazagoa izango da nondik gatozen jakin, eta nora jo nahi dugun adostea gizartearen azken urteetako norabideari erreparatuta, ja-

saten ari garen homogeneousazioak herri bakoitzaren berezitasunak nabarmentzera behartzen gaitu; mundua beste modu batera ulertu eta eraiki nahi badugu, behintzat dio proiektuaren bultzatzaileetako batek, Ruben Iglesiasek.

Herriaren izaera biltzen duen dokumentu pedagogiko baten beharra ez da oraintsuko kontu berria. Begia Orioko eremutik harantz zabalduz, Euskal Herriaren bertan, herritarrek kezka handia erakutsi dute hezkuntza kontuen inguruan. Orio ere ez da salbuespen hezkuntza esparruko kezka eta tentsioari dago-kionean.

Herriaren eta hezkuntzaren arteko loturak balio handia dauka eta aurrerantzean euren artean etengabe elikatzea lor-

tu nahi dugu; hori da gure erronka nagusietako bat.

Lehenengo urteko udazkenetik ezkutukolanean jardun da Orioko Curriculuma sortzen izeneko lan-taldea eta urte hasieran Udaleko ordezkariari aurkeztu zieten proiektua. Orokorrean, inpresio ona egin zien gure planteamenduak. Herriko Udaleko ordezkari diren heinean, berek ere proiektuaren zati izan behar dute, baina gu ez gara inongo alderdi zein joko politikoren itzalean egongo.

Udalak datozen Orio 3ten 2.0 jardunaldien kostua bere gain hartzea erabaki du, baina oraindik ikusteko dago hortik aurrerako gastuetarako laguntza eman-go duen edota, emanez gero, zenbatekoa izango den.

Herri baten etorkizunean hezkuntzak berebiziko garrantzia du. Hezkuntza ikastetxearen eta herriaren arteko zer-bait delako kontzientzia piztu nahi dugu.

Hezkuntzan gertukoagoak zaizkigun edukiak txertatzea nahitaezkoa ikusten dute lan-taldekoek, ikasleek bizitoki duten ingurua behar den bezala ezagutu eta uler dezaten.

Nork/Nola

Hilabete batzuk badira proiektua lantzen hasteko lan-taldea elkartzen hasi zenetik. Norbanakoek zein hainbat herri eragiletako ordezkariak osatzen dute taldea: Txurrunuski, Zaragueta Eskola, Orioko Herri Ikastola, Mugabe esperientzia eskola, Haurreskola... *Eragileei adierazi nahi diegu curriculumeko zati garrantzitsu direla. Kolektibotasun horretatik, informazio bilketa ederra sortzeko aukera dago.*

Orio Curriculumum sortzen-en arabera, Orioko curriculumak sortze-prozesuan izango du berezitasuna: *Curriculumum sortzeko ardura adituen esku uzteko tentazioa egon daiteke, baina gure kasuan, curriculumum lantze horrek emango digu aberastasuna. Herritik herriarentzat egin nahi dugu. Proiektuak ondo irtengo badu, modu kolektiboan eta denon ekarpenak kontuan hartuz egin delako izango da. Orioko Curriculumum herritik herriarentzat egin nahi den lana izanik, elkarlanean du bizirauteko arnasa.*

Taldekideten hitzetan, herritar bakoitzak bere esparruaren berri daki, eta ikuspegi orokorrago bat eduki nahi badugu, nahitaezkoa da alor guztietan dabilen jendearen ekarpenak jasotzea: *Horrek aberastu eta sortuko du ondorengoei transmititzeko curriculum egoki bat.*

Curriculumum sortzeko, herriko eragileekin datu bilketa bat egin nahi dute *auzolanaren kontzeptua oinarri hartuta.* Orioko historia, geografia, lan-sektoreak, ekonomia, kultura... inguruko edukiak biltzeko asmoa dute, baina lanketa horretan, *hainbat balio txertatzeko nahia ere badugu: etorkinekiko errespetua, naturaren zainketa, genero indarkeriaren kontrako jarrera...*

Aurrekariak, 2010eko Orio 3ten jardunaldiak

Lehenengo jardunaldi haietan Hezkuntza sistema propioa ez izateak sortutako muga eta egoera politikoak euskal curriculumum sortzeko jarritako oztopoen jakitun, hausnarketa prozesua jarri zuten martxan Orioko Curriculumum sortzen-eko kideek.

Jardunaldi haien ondoren, bi helburu nagusi finkatu zituzten: herriko hezkuntza mahaia sortzea eta Orioko curri-

“Etorkizunean ondorengoei transmitituko diegunak kezkatzen gaitu, eta horren harira, nahitaezkoa ikusten dugu gure izaera definitzea”

“Herri baten etorkizunean hezkuntzak berebiziko garrantzia du. Hezkuntza ikastetxearen eta herriaren arteko zer-bait delako kontzientzia piztu nahi dugu”

“Proiektuak ondo irtengo badu, modu kolektiboan eta denon ekarpenak kontuan hartuz egin delako izango da. Orioko Curriculumum herritik herriarentzat egin nahi den lana izanik, elkarlanean du bizirauteko arnasa”

“Proiektuan interesa agertu duten alderdi, eragile eta norbanakoek akordio moduko bat sinatzea interesgarri ikusten dugu, curriculumum idazteko prozesuan parte-hartuko dutela adierazi eta euren atxikimendua irudikatuzeko”

“Curriculumum osatuko duten edukien bilketa-lana, metodologia partehartzaile baten bitartez egin nahi dute, nahiz eta, oraindik ez dagoen zehaztuta nola”

HARRIA
EUSKAL HARRIA, Orio, historia, istorioak
APIRILAK 16, 19tan kultur-etxean
1. LOMCE legea: aukerak eta arriskuak ingurua.
 Paul Bilbao (Kontseilua)
 Mariam Bilbatua (Hezkuntzan D...)
 Ikoitz Arrese (Ikasle Abertzaleak...)
 Ainhoa Larrabe (EHBE)
APIRILAK 18, 19tan kultur-etxean
2. GIPUZKOAREN JATORRIAN ETA ORIO HISTORIAN ARAKATZEN.
 NABARRALDE (Hizlaria: Beñi Ag...)
APIRILAK 23, 19tan kultur-etxean
3. ZER DA ORIOKO CURRICULUM-a? Zer eta zertarako?
 Hizlaria: Orioko Curriculumum Sortzen tal...
HITZLARIAK
 **Paul Bilbao:** kontseiluko idazk... Euskararen normalizazio prozes... da Kontseiluaren eginkizuna. Eusk... osoa izatea helburu duten gizar... ugariren bilgunea da.
 **Mariam Bilbatua:** Politika Zien... Hezkuntza Zientzietan lizentzia... Hezkuntza Zientzietan doktorea. Egu... Unibertsitateko irakaslea da eta... gobernu taldean, Hezkuntza, Kult... sailaren arduraduna.

culuma idazten-sortzen hastea. Gerora, bigarren helburuari heltzea adostu zuten, herriko hezkuntza mahaia gerora curriculumum sortzeko prozesuan zehar sortzeko aukera ikusi zutelako.

Lan-taldea sortzea

Dagoeneko, badira hilabete batzuk taldea martxan dela.

Orio 3ten 2 jardunaldiak eta proiektua sozializatzea

2010. urtean antolatutako jardunaldiek izandako arrakasta ikusita, aurten ere ildo beretik jarraitzea erabaki dute. *Aurreko jardunaldiek baino kutsu herrikoia eman diegu aurtengoei. Orio eta inguruotan gehiago zentratu gara, eta*

HERRIA

EUSKAL HERRIA. Herritarrak, kolektibitatea, ehun soziala, auzolana, nortasuna

APIRILAK 20, 11tan Autopista azpian

1. HERRI CURRICULUM-AREN ZUTABEAK

MARGOTZEN: Autopista azpiko zutabeen margoketa auzolanean eta hamaiketakoa. Gure nahiak adierazi ditzagun, herriari kolore piskat emanez! Etorri eta parte hartu, gazte zein heldu!

APIRILAK 25, 19tan kultur-etxean

2. HERRI EZBERDINETAKO ESPERIENTZIAK

AZTERGAI. [Aitor ikastolako esperientzia, Larrabetzuko esperientzia, Usurbilko esperientzia.]

IRRIA

EUSKAL IRRIA. Koloretako ametsak esna nagoenean eta ezin loak hartu gaua iristen denean

MAITZAK 4, 11tan Kiroldegian.

1. IJITOEN AKORDIOA eta PORROTXEKIN FESTA:

Herriko eragile zein norbanakoek ijitoen akordioa sinatuko dute Polikiroldegian. Porrotxek alaituko du festa eta bideo proiektzioa egingo da.

03TEN
.HSN
2

ORIO IRUTEN
7. jardunaldiak
Hezkuntza Sistema Nazionala



Ikoitz Arrese: ikasle Abertzaleak -eko kidea. Euskal Eskola Nazionala lortzeko tresna dugu ikasle Abertzaleak antolakundea. Berau, ikaslez osatutako antolakunde iraultzaile euskaldun, ezkertiar eta feminista da.



Ainhoa Larrabe: E.H.B.E ko kidea. Euskal Herriak hezkuntza sistema nazionala behar duela aldarrikatzen duen herri mugimendua da Euskal Herriak Bere Eskola.



Beni Agirre: Nabarraldeko kidea eta euskara irakaslea. Gure memoria kolektiboa berreskuratu asmoz, urte askoan lanean darraite nabarraldekoek.



Aitor ikastola: ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko proiektua martxan jarri dute Aitor ikastolan. Denbora luzea daramate hezkuntza proiektuaz hausnartzen, planak eta metodologiak pentsatzen.



Usurbilgo esperientzia: herritarrentzat hezkuntza eredu bateratu bat erdiestea da bere helburu nagusia. Eta beraiek ere partehartze prozesu bat jarri dute martxan.



Larrabetzuko herri eskola: Larrabetzuko eskolako jantokiaren esperientzia, guraso elkarteak kudeatzen duen jantokia. Menua osatu, erosketak egin, langileak kontratatu

jardunaldiok, curriculumak idazten eta sortzen hasteko abiapuntu izatea gustatuko litzaiguke.

Apirilaren 16tik maiatzaren 4ra egingo diren ekitaldiak proiektua sozializatzeko ere erabili nahi dituzte. Apirilaren 23ko hitzaldian, Orioko Curriculumak bera azalduko dute eta osatu duten webgunea aurkeztuko. Jardunaldietako azken eguna, berriz, Ijitoen Akordioa sinatzeko baliatuko dute.

Proiektuan interesa agertu duten alderdi, eragile eta norbanakoek akordio moduko bat sinatzea interesgarri ikusten dugu, curriculumak idazteko prozesuan parte-hartuko dutela adierazi eta euren atxikimendua irudikatzen -diote proiektuaren sortzaileek. Horrekin ba-

tera aurkeztuko da Maialen Sarasua oriotarrak gaiak egin duen bideoa. Ekitaldia alaitzeko, Porrotxe etorriko da haurren gozamenerako.

Informazioaren bilketa

Metodologia parte-hartzailearen bitartez egin nahi dute curriculumak osatuko duten edukien bilketa-lana, oraindik nola zehazteke badago ere. Proiekturako lortzen diren baliabide ekonomikoen eta parte-hartzearen araberakoak dira epe eta lanketa estrategiak.

Curriculumak idatzi eta aplikatzea

Behin bilketa lana eginda, edukiak modu erabilgarrian idatzi nahi dituzte, herriko ikasleentzat ahalik eta material interes-

garriena sortzeko. Lanik handiena bilketarekin eta txostenaren egokitze pedagogikoarekin aurreikusten dugu, alegia, Orioko curriculumak bera idaztearekin. Hezkuntza eragileekin elkartu eta informazioari aplikazio eta erabilera pedagogikoa txertatzea izango da fase honetan egitekoa.

Curriculumak osatu ondoren, aplikatzea izango da azken urratsa. Curriculumaren aplikazioa eta erabilera izango dira, beharbada, proiektuaren alderdirik zail eta korapilatsuenak. Kontuan izan behar dugu herriko curriculumak etengabe eguneratu beharreko zerbait izango dela, dinamikoa, herria aldatzen doan heinean eraldatzen baitira ere herritarren izaera eta ezaugarriak.

Irrien laguna

7 oaz ispilu aurrera. Jarri haserre aurpegia. Kendu. Eta orain egin irribarre. Bietako zein ariketak nekatu zaitu gehien?

Bart gauean horrelaxe ibili naiz komuneko lababoaren ringean. Bi boxeo izar hurrenez hurren: haserre aurpegia vs. irribarre. Eta beti da irabazle bigarrera, K.O. *ipso factoz* gainera.

Ez ditut behin ere ulertu kopetilun konstanteen kastakoak. Bai, denok gara eguneroko drama txikien jabe. Denok dugu pipertzeko ahalmena eta eskubi-dea. Bestela gureak egingo zukeen! Baina nik ezin uler ditzaket egunero, orduro, segundoro zaunka egiteko pronto dauden horiek.

Ez pentsa, ez didate haserretik sortzen, harridura baizik. Niretzat naturalagoa, inkontzienteagoa baita irribarre egitea. Lehor aurpegia jartzean energia gehiago gastatzen dut eta alde zurririk pentsatu behar izaten dut gainera: *haserre hago eta muturra okertu egin behar*

dun. Muturra okertu egin behar baitu euskaldunak. Alderantziz, irribarre da zuzena.

Denda edo tabernaren batera zoazenean, bulegoren batean tramiteren bat egiterakoan... askotan izaten dugu horrelakoak topatzeko plazera. Kopeteko zimurrak ikusten dizkiedanerako zera pentsatzen dut: patu krudela gizajohonena! Latza behar baitu horren bisaia aldrebesa izan eta zortzi orduz jendaurrean egon beharrrak. Bide batez, gogorra da baita beren frontoietan gure irribarreak bi paretakoak egiten ikustea ere.



Irrikan nago beren sekretua zein den jakiteko. Izango dute arrazoiren bat. Ez dakit bizi-bizi munduratu eta gero lehortzen diren edo zuzenean zimelduta jaiotzen diren. Beldurrez nago, agian denok izango baitugu irribarrearen irautze data jogurtak bezala. Ah! Ez, horiek dagoenerako ez dute halakorik!

Moda kontua ere izango da. Begiratu bestela pasareletan kaka mariatuz aurrera eta atzera dabiltzan horiei. Zoritzarrez, mozolo askok pentsatzen du kaktus aurpegia jarriz besteek pentsatuko dutela izugarriko barne-bizitzaren jabe direla. Artista izateko beharrezkoa baita oinazeak pairatzea.

Hara, ni antigoelekoa naiz. Errenazimentu garaian jaio izan banintz sex-symbol bat izango nintzatekeen nire azal txuri, muxu gorri eta borobiltasunekin. Aurpegiko kurbak errebindikatu nahi ditut eta bigarren errenazimentu aroa ekarri Oriora. Denon masaiek borobil erdi bat sortu dezatela.

Nik ezin uler ditzaket egunero, orduro, segundoro zaunka egiteko pronto dauden horiek

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

HAIZE BERRI
Babarrun-jakiteko barneko

Plater konbinatuak,
bekatak,
handburgesak,
razioak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Ordu: 10:00am - 10:00pm Tel: 943 83 10 12. Auzoa: gurea. Ibaia

Igo zaitetz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934
galerna1orio@hotmail.com

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

www.IGLESIASARRAILAGILEAK.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias.sarrailagileak@gmail.com
ROBIO ORIO

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardandegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

Aire garbiak bira gaitzala

Zubietan errauskailu bat eraikitzeko proiektua proposatu zuten 2011. urtean eta 263 milioi inguru euroko obraren lanak 2012. urtean ekin-go zituztela aurreikusitak zuten. Jada urte bat pasa da eta proiektu horren abiadura mantsotzea lortu dela esan dezakegu. Errausketaren kontrako plataformek egindako lana gutxietsi gabe, gaur egungo krisi ekonomiko larriak azken honetan eragin izugarria izan du ordea. Gainbehera ekonomikoak ezinezko egin baitu proiektua gauzatzea, baina interes politikoek bertan jarraitzen dute.

Horrekin guztiarekin, Orioko hondakinen kudeaketaren gainean hitz egin nahi dizuet. Inguruko herrietan aldaketa nabariak ikusi ahal izan ditugu. Orion bosgarren edukiontzia nahikoa al da? Gertutasunari dagokionez, Usurbil aurkitu dezakegu beste hainbaten artean - Oiarzun, Zaldibia, Astigarraga, Hernani...-. Aipatzekoa da errauskailuaren ondorioak sailhesteko herriak zein Udalak eginiko lana, baita lortutako emaitzak ere. Izan ere, 2009ko martxoaren 16an hondakinak atez ate biltzen hasi zirenez geroztik, hondakinen %28 birziklatzetik %82 birziklatzera pasa

dira. Aldaketa nabaria; zergatik ez halakorik hemen?

Erraza da Udalari errua botatzea, errazegia. Arazoa, ordea, gudan dagoela iruditzen zait. Herri bakoitza ezberdina da eta, agian, sistema guztiek ez dute eraginkortasun bera bakoitzean.

Baina nire iritziz, *erosotasunera* ohitu gara. Ikastola aurrean, hondakin organikoa biltzeko ontzi kirasduna eroso bada... -Egia da horretan Udalak zerbait egin dezakeela, leku aproposago batean kokatuz, edota usaina gutxitzeko moduren bat aurkituz-. Baina benetan erosotasuna galtzearen beldur bagara, zergatik gaude atez atekoaren kontra? Etxe azpian hondakinak utzi eta egunero jasotzea baino erosoagorik ba al da?

Beste hainbat mamu ere sinetsarazi dizkigute. *Garestia omen da*. Ez bost edukiontziko sistema baino garestiagoa. Bilketa garestiagoa den arren -lan-esku gehiago, beraz, lanpostu gehiago ere bai-, birziklatu gabeko errefusaren kudeaketa merkeagoa baita.

Kiratsa dario: Organikoa denbora luzez gordetzen bada -bost edukiontzien kasuan gertatu daitekeen bezala- usaina hartzen du, baina atez atekoaren bitartez hondakinak egunean bertan biltzen direnez, ez dago arazorik.

Hala ere, errauskailuaren beharra izango dugula ere sinetsarazi digute. Modu horretan hondakinen %80 inguru birziklatu daitekeen eta birziklatu gabeko hondakin apurrak kutsagarriak ez direnez, ez da arazorik izango edonon biltzeko.

Azkenik, errauskailuaren ondorioak kalkulatzeko orduan, Orio bost kilometroko erradioan sartzen denez gero, arrisku goreneko gunean kokatua izan da. Beraz, bihotzeko arazoak, minbiziak, jaiotzera doazenek... jasateko arriskua dugu.

Gauzak aldatu nahi baditugu, orain da garaia. Mentalitatez aldatu behar dugu, hondakinen arazoa oso garrantzitsua eta guztiona baita. Berandu baino lehen, ekin diezaiogun lanari!

Nire honetan
Eli Manterola

Artea lapurtzen

Lapurreta eta artea. Artelanak lapurtzeko modu bat baino gehiago dira sonatuak. Nahikoa zalaparta piztu zen, adibidez, Munchen Oihua koadro eza-guna egun argiz ostu zutenean Osloko museo nazionaletik. Gurean ere, norbaitek eraman zuen Oteizak eginiko Ama Birgina Kukuarri puntatik. Literaturan ere ugariak dira plagioak. Azken batean, zer dira ba plagioak, ez bada beste norbaiten lana bereganatzea? Artelan mota ugari dugu inguruan, nork maitatuko zain. Aitor dezadan: nik ere badut etxean kalean botata topatutako artelanik.

Artea eta lapurreta. Lapurtzeko arterik ere erakutsi du askok azken boladan; burua gehiegi nekatu gabe erraz botako genuke telebistan ikusiriko bat edo besteren izenik. Herrian bertan ere izan dugu, bai, lapurren bisitarik azken aldian. Ez etxeetan edo dendetan bakarrik. Duela aste batzuk natur zale koadrila bat zuhaitzak landatzen ibili zen hondartza inguruko zelaietan, hala nola ametzak, gurbitzak eta arteak. Arte horietako bat lapurtzeko artea edo abilezia erakutsi duenik ere izan da. Etxea apaintzeko erabili badu zuhaitza, bejondeiola! Mutur aurrean zuhaitzarekin topo egin eta zakarretara botatzea erabaki badu, botako ote zuen sikiera edukiontzi ma-

Organikoa denbora luzez gordetzen bada -bost edukiontzien kasuan gertatu daitekeen bezala- usaina ematen du, baina Atez Atekoaren bitartez hondakinak egunean bertan biltzen direnez, ez dago arazorik.

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80, Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

KIROMASAJISTA
etxeko zerbitzua

- Masaje terapeutikoa
- Zirkulazioa hobetzeko masajea
- Masaje erlaxagarria
- Estresaren aurkako masajea
- Kirol masajea

Tf.: 676 198 904



MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Santiago aztoa - 18 postakutza
Tel.943 830 743
Fax.943 134 834
E-mail: Imanterola@euskalnet.net
20810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako habulak
AENOR kalitate zurgarritik



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arranzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

Ile zpaindegia

MARIJO



Neska eta
mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO



MIRANDA

tarima, ata, leiho, eskalera...
behar diren arazi lanak
egingo ditugu

Urdaneta bidea, 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

PERTSIANAK

A
K
O



M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA
ARITZAGA BALEA, 2 - TEL. 943 13 17 43
www.facebook.com/rosmarrillaga
30% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■
FATXADEN ERABERRITZEAK ■
ISOGAILUEN PROIEKTUAK ■
GREMIO KOORDINAKUNTZA ■
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGODA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBE, ARKITEKTOA 635 731722

tel/fax: 943 89 00 69
Bichua kalea, 4 - 20.800 ZARAUTZ



URBIDE O.K.

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Presupuestuak, kontratuak, etc.

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tf/fax: 943 83 59 00

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75



ARIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com



Zaragueta
Herri Eskola *Oriko*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkunitza.net

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

Gaia emanda Aita Santu berria

Benedikto XVI.a Aita Santuak zereginari uko egin ondorengo prozesuaren ostean, Frantzisko Aita Santuak hartu du kargua. **Zein iritzi duzue Aita Santuaren aukeraketaz?**

Aita Santu berriari eskakizuna

Habemus Papam. Hori zen martxoaren 13an, jendez lepo zegoen San Pedro plazan, entzuten zen oihua. Ez zegoen jende soila bakarrik; horiez gain, mundu guztitik joandako kazetariak, telebistak, irrati nahiz egunkariak... horiek guztiak informazioa lehen eskutik beren herrialdeetara zabaltzeko.

Bi mila eta gehiago urte pasatu eta gero, nondik dator kio indarra Galileako herririka batean, gaizkile moduan hila izan zen Jesus izeneko gizon batek, abian jarri zuen mugimenduari?

Hori guztia, orain egun gutxi batzuk gertatutakoa da; hain zuzen ere, bere pentsatzeko modua, erlijiosoa baino lehen, beste zerbaitez –agnostiko, ateo...– dela

Aita Santu berriari gogoeta bat eskatuko nioke; berari eta berarekin Elizaren agintea osatzen duten guztiei. Hau al da Jesusek nahi zuen Eliza? Hau al da orain dela bi mila urte abian jarri zuen mugimendua?

pentsatzea nagusitzen ari den gizarte batean.

Nire uste apalean, pertsona gorputz eta arimaz dago osatua eta zoriona bilatu ahal izateko, bien arteko oreka lortu behar da. Elikagaiak behar ditugu gorputzarentzat, baina baita arimarentzat ere; eta ildo beretik jarraituz, gorputzarentzat bilatzen ditugu, baina arimarentzat?

Gizartean zerbaitez egin ahal izateko antolatu beharrean gaude. Antolatzen hasita, orde, antolamendua askotan handiegia egiten da eta lagungarri izatetik helburu izateraino iristen da. Horrelako zerbaitez gertatu zaio gaurko Eliza Katolikoari. Seguruen nago, Galileako gizon gazteak ez zukeela onartuko, gaur egun, katolizismoak duen egitura eta are gutxiago, egitura horretatik sortzen diren hainbat hutsune nabari.

Aita Santu berriari gogoeta eskatuko nioke; berari eta berarekin Elizaren agintea osatzen duten guztiei. Hau al da Jesusek nahi zuen Eliza? Hau al da orain dela bi mila urte abian jarri zuen mugimendua?

Galdera horri erantzun jator bat ematen hasten badira, ziur naiz nik neuk bezala beste askok ere Eliza Katolikoan bilatuko genukeela bizitza honetan zoriona lortu ahal izateko arimak behar duen jakia.

Antonio Campos
Jubilatua

Aita Santuak, oraindik...

Harrigarria iruditzen zait oraindik hala-ko figurek irautea. *Aita Santua* izena bera ere guztiz harriagarria egiten zait. Santu hitz horrek ez du jada ezer esaten eta *aita*, berriz, ez dakit nondik datorren, baina Jesusek *aita* deitzen zion horrekin ez du ez zerikusirik handirik.

Ez naiz elizara joaten, baina aitortu behar dut Jesusen istorioak asko gustatu izan zaizkidala beti, eta gaur elizaren –Aita Santua, gotzainak, fraideak, mojak, katedralak, erritoak, dogmak, sinismenak– iturrian bera dagoela jakiteak seko harritzen nau.

Izenak ez du garrantziarik, izenaren atzean eta gure pertsonaietatik haratago garena izateak baizik. Eta horretarako ez dugu egin behar duguna esango digun inor behar, ez Aita Santurik, ez gururik, ez Lehendakaririk, ez epailerik eta ez inor

Nik dakidala, Jesusek ez zuen aita santurik. Ez al zuen esaten berak barrura begiratzeke, egia gudan dagoela?

Ez, nik ez dut Aita Santu eta apaizen kontra ezer ere, baina benetan ekintza zuzenik baldin bada, ez da izango beste batek agindutakoa. Ekintza zuzen orenen iturria norberaren baitan egonen da, nonbait egotekotan.

Jesusek zerbaitez aurkitu zuen bere barruan, eta *aita* deitu zion. Beste batzuek Atman deitzen diote barruko askatasun horri; beste batzuek Ala; beste batzuek egia edo maitasuna; eta gure herrian Mari, Mayi edo Pagoetako dama deitzen genion.

Izenak ez du garrantziarik, izenaren atzean eta gure pertsonaietatik haratago garena izateak baizik. Eta horretarako ez dugu egin behar duguna esango digun inor behar, ez Aita Santurik, ez gururik, ez Lehendakaririk, ez epailerik eta ez inor.

Halako pertsonaiak behar dituen gizarte batek ezjakintasunean jarraitzen duela erakusten du, ez baitu oraindik batzen gaituena aurkitu.

Zorterik onena opa diet Aita Santu zahar eta berriari. Bere ere *aita* aurkituko al dute noizbait... Norberarengandik ihes egiteko entretenimenduak sortzeko makina den gizarte honetan, Aita Santua eta bere zirkoa beste bat, nahi duenarentzat.

Josu Galdos
Banatzailea



Oholtzarik gabe, pianoa eta mikroa jendearen mailan zirela egin zuten emanaldia. IÑIGO GAITON

Bi arreba, Lizaso eta Egaña, pianoa eta bertsoa

Kritika Bi arreba

Piano jotzailea: Xabier Lizaso.
Bertsolaria: Andoni Egaña.
Chopenen piezek eta Xenpelarren bertsoek bat egiten dute emanaldian.

Korrika kulturalaren aitzakian *Bi Arreba* emanaldia eskaini zuten Xabier Lizaso eta Andoni Egañak martxoaren 24ko gauean.

Bata pianoarekin eta beste bertsoekin zer eskainiko zuten zain zegoen jendea Kultur Etxearen atarian, ilara eginez.

Sartu eta pianoa eta mikroak behean, oholtzarik gabe,

ikusteak harritu gintuen denok.

Andonik hasieran azaldu zuten bezala, Chopin eta Xenpelar aitzakia ziren pianoa eta bertsoa uztartzeko.

Xabier, Chopinen *Les Nocturnes*ekin hasi zen, elegante, gau ilun horretarako. Segidan, Andoni Xenpelarren bizitzaren berri ematen hasi zen eta haren bertso sorta ezagunak tartekatzen –*Iparragirre abila dela, Hara nun diran, Bretoiarenak, Haizak hi mutil mainontzi...*–.

Bitartean, Xabierrek Andoniri lagundu eta pianoari egurra ematen jarraitzen zuen: *Mazurka, Tristesse, Hileta Martxa...* tarteka Chope-

nen bizitzaren gora beherak kontatuz.

Ez dago esan beharrik aitzakia ederra izan zela Chopin eta Xenpelarrena. Emanaldiari izenburua *Bi arreba* zergatik jarri zioten ez dizuet nik kontatuko, hilaren bukaeran Usurbilera joan besterik ez duzue.

Esango dizuedana da, eskertzen dela, musika klasikorako sentsibilitate handirik ez dugunontzat bereziki, horrelako aukerak izatea; areto handietatik aparte, pianoa eta mikroak behean, oholtzarik gabe ikusteak alegia.

RIKARDO UZKUDUN

Ikasleak idazle
Eider Zubeltzu

Eskerrak herriari

Aurtengo ikasturtean ere DBH4. mailako ikasleak ikasketa bidaiara joan gara. Horretarako dirua lana eginaz lortu dugu eta herriko jendearen partaidetza eskertzekoa izanda. Egia da, krisiaren ondorioz, ez gaudela momentu onenetan, baina uste genuena baino hobeto erantzun digu herriak.

Hainbat erara saiatu gara dirua lortzen: elkar-



tasun tonbola, zinema, futbito txapelketa, txistorrada, kamiseta eta poltsen salmenta, boletoa...

ak...

Dirurik gehien lortu genuen ekintza elkartasun tonbola izan zen, 3.100 bat euro gutxi gorabehera lortu gintuen, baina guztia ez zen guretzat izan, erdia Ruandara bidalia izan baitzen.

Azkenik, idatzi honekin, eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten pertsona guztiei: eskerririk asko!

Egia da, krisiaren ondorioz, ez gaudela momentu onenetan, baina uste genuena baino hobeto erantzun digu herriak

KOLON TXIKI
aurkitze eta jateko
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Lizaso
dekorazioa
Eusko Gudari, 4B
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 84 07 18

LORETXU JATEKOA
Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

LURDES
ARRANDEGI
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

» INKESTA

Irristakorrek al dira Orioko kaleak?

87 erantzun jaso ditu galderak. **%72**k kaleak irristakorrek direla esan du, **%21**ak ezetz, **%3**ri bost axola zaio kontua eta **%2**k ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA****Orietarrok gure ohiko erosketak Orion egiteko joera al daukagu?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza XXX. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Tope gitxaudek! Erronka zio!**

Martxoaren 29an argazkian dauden bi koadrilek elkarren arteko futbol partida jokatu zuten: *parranderoen* koadrilak eta *arraunlarien* koadrilak. Partida irabazten zuen taldeak besteari afaria ordaintzea zuten jokoan, eta, 90 minutuak bukatu zirenean 2-2 bukatu zuten. Afaria albo batera utzi eta ohorea jokatu zuten penaltietan, eta *parranderoak* izan ziren nagusi, 3-2. Gauean, Balea elkartean afaldu zuten elkarrekin.

» ZORIONAK!

Karkararen laguntzaileei

KARKARAK laguntzaile berriak egiteko kanpaina jarri du abian. Horri erantzunez, gure aldi-kariak bizirauteko urteetan laguntza eman dutenak, laguntzaile egin berri direnak eta eskatu zaiena baino diru gehiago emateko prest azaldu direnak eskertu nahi ditugu. Krisi garaian aldi-kariari kritirik ateratzen laguntzea eskertzekoa baita, benetan.

Eskertu nahi genuke, era berean, laguntzaileen pazientzia. Bat edo bestea tarteko, hainbat endredu sortu izan dira eta pixkanaka konpontzen joan eta joango gara.

Bestalde, oraindik ez direnak KARKARAREN laguntzaile egitera animatu nahi genituzke, zuen laguntza ezinbesteko da-eta.

Nahikari

HAUR DENDA

Arrantzale Kalea, 35
20100 - Orrio
Txf: 943 23 36 30
www.nahikari.es

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083
FAX - 943. 571190
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDÓ 13
20810 ORIO

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Ibai Ondó, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 00
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delaoruz.pa@allianz.es

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Fileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldi-oro zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroioak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Faxa: 943 88 48 41
e-mail: harrespil@harrespil.net

Luis Treku: gora errepublika!

Oroimenaren kutxa

Luis Genova, *Luis Treku*, errepublikazalea izan zen bizitza osoan: gerra aurretik, gerran eta gerra ondoren. Horrexegatik alde egin behar izan zuen Oriotik 1936ko udan Francoren tropak herrian sartu aurretik, geldituz gero hiltzeko arriskuan zego-elako.

Familia osoa joan zen, andre-gizonak eta lau seme-alabak. Bosgarrena Katalunian jaio zitzaien, 1937ko uztailearen 14an, Frantziako Errepublikaren egunean. Gerrak bananduta ibili ziren: aita alde batetik eta ama lau txikirekin bestetik Frantzian, eta seme Florentino Grenoblen.

Gerra bukatuta, Argentinara joatekotan egon zen, baina etxera itzuli ziren. Berriz Orion, Luis Trekuk Guardia Zibilarren baimena behar zuen itsasoan lanean hasteko. Donostiako kuarteleko komandanteak: *¿sabe usted que conducta tiene? comunista y pistolero*; eta Luisek: *Nunca, siempre republicano*. Militarrak, orduan: *Ahí tiene el pase, mañana a la mar, usted es el único que me ha dicho la verdad*.

Orioko traineruak 1933 eta 1934an irabazitako Errepublikaren banderak moztortuta eduki zituen Udalak Francoren garaian: more koloreko marra gorrituta, eta ezkutuan. Luis Trekuk, berriz, ez zuen inoiz ezkutatu bere pentsaera. Urtero ospat-



Luis Trekurenean urtero ospatzen dute Errepublikaren eguna. F. AGIRRE

zen zuen Errepublikaren eguna, apirilaren 14an. Ondo bazkaldu ondoren, txistua jotzen pasatzen zuen arratsaldea, kantu errepublikanoen errepaso eginez. Inazio Genova Kaxkazurik hala dio: *Luis Treku gauza zan kantari hasi eta hurrengo egunera arte isildu gabe jarduteko*.

Festazale eta kantuzale amorratua zen; gizon ireki, jator eta alaia, ezagutu zutenentzat. Hil aurretik, hala agindu zuen: kolore errepublikanoekin lurperatzeko Orioko kanposantuan. Hala xe egin zuten, 1981-10-30ean, 88 urterekin hil zenean: zinta eta koroa gorri-hori-more banarekin.

Aurten gogoz kantatuko dute haren etxean *Niña republicana*, orain urreago ikusten baita Errepublikaren etorrera, erregeari eta haren alaba-suhieiei esker.

Niña republicana sal al balcón, porque si tu no sales, nos sale el sol, niña republicana vuelve a salir porque si tu no sales, si tu no sales voy a morir.

Republicana soy y seré a mi partido defenderé, a mi me gusta la libertad, porque yo siempre he sido de la república federal.

¡ IÑAKI ITURAIN !

» JAIO TAKOAK

- Mikel Iriso Cumbres, Orion, martxoaren 26an.
- Maddi Iribar Fernandez, Orion, martxoaren 13an.

» EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

» HILDAKOAK

- Juan Angel Arruti Manterola, Zarautzen, apirilaren 4an. 52 urte.
- Josefina Garmendia Labandibar, Aian, apirilaren 2an. 83 urte.
- Mercedes Salsamendi Gonzalez de Txabarri, Orion, martxoaren 31n. 93 urte.
- Maria Diaz Lopez, Orion, martxoaren 30ean. 89 urte.
- Anita Salegi Uranga, Orion, martxoaren 22an. 64 urte.
- Iñaxi Zaldúa Segurola, Orion, martxoaren 22an. 93 urte.
- Segunda Etxeberria Mendizabal, Zarautzen, martxoaren 21ean. 91 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 831 527**



ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Aseguru-agentia
ASEGURUA
Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KAIUA
Plater konbinatuak, bokatak, hamburgesak...
ANBANKO PORTUA 35, BEHEA TF.: 943 940 060

943 572 870
KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

“Egunero-egunero egin behar da euskararen aldeko Korrika”

Amaia Zaldua

AEKko irakaslea eta Korrikako koordinatzailea

Euskara ikasten ari diren herritarrez osatutako hiru talde ditugu gurean: bi Orion eta bat Aian. Horien artetik bakarra da EGA-Alfabetatze mailakoa eta Amaia Zaldua zarautzarrak gidatzen du. Horrez gain, 18. Korrikako koordinatzailetako bat ere izan da

L.BERASALUZE

Kontentu dago Amaia Zaldua Korrikaren biharamunean. Nazio mailako AEKk zorionak eman dizkie Urola Kostan euskararen aldeko mugimenduan lan egin dutenei, ikaragarri ederra izan dela-eta. Baina, euskara zabalduz segi nahi du Zalduak. Fin jarraitzen du EGA-Alfabetatze ikastaroko zazpi lagunei euskararen sekretuak kontatzen.

Noiztik zabilta AEKn?

Aurreko edizioko Korrikarekin hasi nintzen. Ikus-entzunezko komunikazioko ikasketak egindakoa naizenez, lan horretarako egokia nintzelako aukeratu ninduten. Urola Kostako koordinatzailea izan nintzen orduan.

Ondoren, glotodidaktikako ikastaroa egin nuen eta urte hartan bertan hasi nintzen euskara irakasten, Zumaian.

Eta zer egin duzu ordutik hona?

Zarautzen eta Zumaian eman nituen eskolak iaz. Horrez gain, irakasleentzako euskara-prestakuntzaz ere arduratzen gara eta laugarren perfila dudanez, neroni aritzen naiz horretan. Asanblada bidez hartzen ditugu horrelako eta antzerako erabakiak; denon artean adosten dugu zein den honetarako eta horretarako pertsona egokiena.

Aurten, berriz, Orion naiz euskara-irakasle, Aitor Urbietarekin batera. Hasi berriekin aritzen da Aitor; alfabetatu nahi duten euskaldun zaharrek eta EGA aterata nahi dutenekin ni.

Askok ez du ulertuko nola bateratu gemitzakeen gela berean euskaraz alfabetatu gabeak eta EGA aterata nahi dutenak, baina bien arteko elkarlanak emaitza onak ematen ditu. Elkarriz lagunduz betetzen dituzte hutsuneak.

Nolakoa izaten da zuen eskola bat?

Atariko, idatzizko eta ahozko probaren atzetik euskararen erabilera arauak



KARKARA

daude eta horiek ulertzea eta praktikan jartzea ezinbestekoa da. Jolasen bitartez lantzen dugu gehientsuena, taldeetan jarrita askotan.

Asko miresten dut ikasleen jarrera: egiten duten esfortzua, duten burugogorkeria, aurrera jarraitzeko indarra... Azken batean, astean hirutan euskara ikastera etortzeak eta etxerako lanak egiteak asko eskatzen du. Eta halere, gozoz etortzen dira.

Zaila izaten al da herri txikietan eta arnaguneetan taldeak osatzea?

Kontatu didatenez, lehendik ere izan dira zero mailako taldeak Orion, baina urteak ziren EGA-Alfabetatzeko taldea osatzen ez zela. Aian ere ez da talderik ateratu mordoxxa batean, 2012ra arte. Hasiera batean taldea sortzen bada ere, lan-kontuak tarteko, ikasleak huts egiten hasten dira gutxira. Lana eta ikasketen arteko aukeraketa egiteko orduan lanak du lehentasuna, jakina! Eta taldea desegin egin izan da behin baino gehiagotan.

“Asko miresten dut ikasleen jarrera: egiten duten esfortzua, duten burugogorkeria, aurrera jarraitzeko indarra...”

“Han eta hemen Amaia Zalduaren aurpegia aterata bada ere, herritarrak direla benetan Korrika aurrera eramaten dutenak”

Zer moduz joan da 18. Korrika gurean?

Herri batzordekoekin hitz egiteko nago –KARKARA inprentara bidean zela ziren egitekoak balorazio bileran–, baina azpimarratu nahi nuke, han eta hemen Amaia Zalduaren aurpegia aterata bada ere, herritarrak direla benetan Korrika aurrera eramaten dutenak.

Oso gustura nago oriotarren lanarekin eta erantzunarekin. Korrika batzordea finko antzekoa da –urtero jende bertsua izaten da bertan–, baina Aiatik ere agertzen dute laguntzeko prestutasuna. Ekitaldi polita egin zuten Aian ere, Korrika Txikiaren harira.

Oso erraz egiten da Orion Korrika. 10 kilometro saldu ditugu aurten eta gehiagoren eskaria geneukan, Zarautzen bezala. Ez dago asmatzerik.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 831 527) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Saltzeko

■ Etxebizitza berria salgai Aian. Hiru logela, bi bainu-gela eta garajea. Tf.: 629 680 410.

Alokatzeko

■ Bilogelako etxebizitza alokagai Abaromendin, garajeabarne. 70 metro koadro inguru. 650 euro. 688 617 606
 ■ Arrantzale kalean, anbulatorio alboan, garaje irekia alokagai. 50 euro-tan. Tf.: 697 786 482.

Galdutakoak

■ Barruan hiru betaurreko pare zituen bandolera-beltza galdu dut. Baten batek aurkitu badu deitu mesedez zenbaki honetara: 687 920 455 (Andoni).

■ Hiru giltza daude Udaltzaingoaren bulegoan. Norbaitek tren-geltokia inguruan galdutakoak.

Erosteke

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badu hobe. Tf.: 615 790 965

Lan eskaera

■ Edozein lan egiteko prest. 10:00etatik aurrera. Tf.: 666 116 641 (Nubis Rodriguez)
 ■ Goizetan edozein lan egiteko prest. Esperientzia zabaldu dut umeak zaintzen, garbiketan eta sukaldean. Tf.: 661 231 109.
 ■ Emakumea prest etxeko lanetarako, zaharrak edo umeak zaintzeko eta ant-

zeko lanetarako. Tf.: 649 228 787.
 ■ Erreferentzia onak, esperientzia eta paperak legeztatuta dituen emakume arduratsua lan bila. Barnean zein kanpoan bizi izateko prest. Ostalaritzan lan egin dut. Tf.: 617 789 397.
 ■ 2. batxilergoko ikasleak klase partikularrak emango lizkiok behar duenari. Tf.: 689301296 (Ainara).

Bestelakoak

■ Astelehenetik ostiralera Oriotik Hernanira joaten naiz autoz 07:30ean. Usurbil eta Errekaldetik pasatzen naiz. Biltzen garenon artean banatu gunitzake gasolina gastuak. adurcampo@yahoo.es

» ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
12	06:29 eta 18:44	00:13 eta 12:29	
13	07:02 eta 19:16	00:48 eta 13:03	
14	07:35 eta 19:50	01:23 eta 13:37	
15	08:10 eta 20:26	02:01 eta 14:14	
16	08:49 eta 21:08	02:41 eta 14:55	
17	09:38 eta 22:01	03:28 eta 15:45	
18	10:41 eta 23:11	04:27 eta 16:48	
19	12:01 eta	05:37 eta 18:03	
20	00:31 eta 13:18	06:51 eta 19:14	
21	01:40 eta 14:17	07:53 eta 20:13	
22	02:35 eta 15:04	08:44 eta 21:02	
23	03:21 eta 15:46	09:28 eta 21:46	
24	04:03 eta 16:26	10:10 eta 22:28	
25	04:45 eta 17:06	10:51 eta 23:10	
26	05:26 eta 17:47	11:32 eta 23:53	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA	Azaldegi:	Urdaneta kalea, 8.
■ 12an, Mutiozabal.	943133183 Zarautz	
■ 13an eta 14an, Lasa.	Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.	
■ 15ean, Zulaika.	943832398 Zarautz	
■ 16an, Iriarte.	Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.	
■ 17an, Azaldegi.	943832970 Zarautz	
■ 18an, Mutiozabal.	Larrañaga: S. Frantzisko, 16.	
■ 19tik 26ra, Lasa.	943133814 Zarautz	
■ 22an eta 28an, Azaldegi.	Lasa: Herriko plaza.	
■ 29an, Larrañaga.	943830936 Orio	
■ 30ean, Mutiozabal.	G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.	
MAIATZA	943134019 Zarautz	
■ 1ean, Lasa.	Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo	
■ 2an, Etxeberria.	Enea, 943132983 Zarautz	
■ 3an, Azaldegi.	Zulaika: Bizkaia kalea, 41	
Gaueko zaintza: Iriarte	943133994 Zarautz	

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:14	6:44	7:14	7:44	8:14	8:44	9:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	6:20	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:20	7:38	8:08	8:20	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08	22:40
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:25	7:45	8:15	8:25	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:47
Donostia	6:39	7:09	7:39	7:48	8:08	8:39	8:48	9:09	9:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:11

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugipuzkoa.com. Grisez dauden orduetan trenak daude lanegunetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ORIO-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:30	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:40	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:00

ZARAUTZ-ORIO-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:05	10:30	11:05	11:30	12:35	13:30	14:05	14:30	15:05	15:35	16:05	16:30	17:05	17:35	18:30	19:30	20:05	20:30	21:30	22:00

N-634 errepidetik doan zerbitzua.

OSPITALEAK

OSPITALEAK-ORIO-ZARAUTZ

Ospitaleak	8:10*	8:15	9:15	10:15	11:15	13:15	14:15	15:10*	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	22:10*
Orio	8:30	8:55	9:55	10:55	11:55	13:55	14:55	15:30	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55	22:30
Zarautz	8:40	9:05	10:05	11:05	12:05	14:05	15:05	15:40	18:05	19:05	20:05	21:05	22:05	22:40

ZARAUTZ-ORIO-OSPITALEAK

Zarautz	7:15	7:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:10	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15
Orio	7:25	7:55	8:55	9:55	10:55	12:55	13:55	14:15	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:25
Ospitaleak	7:45	8:15	9:15	10:15	11:15	13:15	14:15	14:45	17:15	18:15	19:15	20:15	21:15	21:45

Zerbitzua autobidetik, lanegunetan bakarrik. *Donostia Pio XII-tik hasten da, 5 minutu inguru Ospitaleetara iristeko.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ORIO-ZARAUTZ

Donostia	8:00	...	ordu oro...	22:00	22:30
Orio	8:35	...	ordu oro...	22:35	23:05
Zarautz	8:45	...	ordu oro...	22:45	23:15

ZARAUTZ-ORIO-DONOSTIA

Zarautz	6:45	...	ordu oro...	21:45
Orio	6:55	...	ordu oro...	21:55
Donostia	7:35	...	ordu oro...	22:35

N-634 errepidetik doan zerbitzua. Gaueko zerbitzua lurraldebus.net



Errimak oinetan; bertsoa dantzan

Bertsolaritza oinarri duen dantza emanaldia da *Errimak oinetan*. Bertsolariek entzuleengan sentipen eta emozioak sortzen dituzte eta entzuleak dantzariak balira bertsoan jasotakoa dantza bidez adierazita ikusteko aukera eskainiko dute ikuskizunean. Maitane Mujika tarteko duen Haatik dantza konpainiak bertsoei jarritako dantza berriak eskainiko ditu apirilaren 20an, 22:00etan, Karela kiroldegian.

Rocio Fatima Duarte medium bideratzailea. Mandalara taldearen lokalean, 20:00etan. Doan. Apirilaren 21ean. *Yan-Ya metodoa. Loturak hautsi eta arbasoekin bat egin*. Irakaslea: Rocio Fatima Duarte medium bideratzailea. Mandalara taldearen lokalean, 10:00etatik 20:00etara. 80 euro. Izena emateko: 648 487 489 edo mandalarataldea@gmail.com

Orio

Erakusketa

■ Apirilaren 15etik 26ra. Jose Ramon Salsamendiren pintura erakusketa. 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Kultur Etxean.

Ipuin kontalaria

■ Apirilaren 15ean. Ipuin saioa Ines Bengoa kontalaria-rekin. 5 eta 8 urte bitarteko umeentzat. 18:00etan, Udal liburutegian.

Bilera

■ Apirilaren 15ean. San Pedro festak antolatzeko bilera. 18:30ean, Kultur Etxean.

Informatika

■ Apirilaren 16an eta 17an. *Open office* ikastaroa. 18:00- 20:00, KZgunean.

- Apirilaren 23an. *Osarean* ikastaroa. 18:00- 20:00, KZgunean.
- Apirilaren 25ean. *Youtube*. 18:00-20:00, KZgunean.
- Apirilaren 22an. IT txartela lortzeko azterketa. 18:00-20:00, KZgunean.

Saskibaloia

■ Apirilaren 16an. 16: 00etan. Alustiza autobusak-Zarautz Zast, bigarren maila probintzial senior gizonetakoak. 18:00etan, Orioko ikastola-Zast 97-98, partaidetza kadete mutilak. Apirilak 17, 09:30ean, Orioko ikastola-Bera-Bera, infantil neskak. 11:00etan, Orioko ikastola-Santo Tomas Lizeoa, partaidetza kadete neskak. Karela kiroldegian.

Futbola

■ Apirilaren 13an. 16: 00etan. kadeteen ohorezko mailan,

Orio-Kostkas Miren Bihotza. 18:00etan, afizionatuen go-rengo mailan, Orio-Behobia. Apirilaren 14an, 11:30ean, infantilen ohorezko kopan, Orio-Urola. Mendibeltzen.

Bingoa

■ Apirilaren 17an eta 24an. Zaharren Babeslekuak antolatutako bingo saioa. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

■ Apirilaren 24an. Traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurretik zer atera behar duzuen jakinarazi. Tf.: 943 83 03 46.

Hitzaldiak

■ Apirilaren 19an. *Euskaraz bizi-bizi* egitasmoaren aurkezpena. 19:00etan, udaletxean.
 ■ Apirilaren 19an. *Kotzientzia berriaren esnatzea*. Hizlaria:

Aia

Erromeriak

Apirilaren 14an, Aztiazaran anaiak eta Leire trikitilariekin erromeria. 21ean, Bide batez taldea eta Furundarenarekin. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazu plazan.

Atzeko azala: Aia-Orio

Pukas eta Kepa Loidi taldeen 1997ko plaierotako argazkia. Argazkian Juan Angel Arruti eta Ignacio Zaldia agertzen dira; gaixotasun bera jasan ondoren, azken urtean hil diren oriotar gazteak.

Iturria: KARKARA

